



KONTRASTEKO MAHAI POLITIKOIA

2024ko ekainaren 25a

GAI-ZERRENDA:

- 1.- Ongi etorria ematea, ordezkariak aurkeztea eta bileraren helburua azaltzea.
- 2.- Enpresen Kontsulta Foroan proposatutako ekintzen errepaso.
- 3.- Kontrastea egitea, ideiak eta ikuspegiak partekatzea eta ekarpen berriak egitea.
- 4.- Galde-eskeak.

BERTARATUAK (% 67)

DEITUTAKOAK		BERTARATUAK	EZ BERTARATUAK	
			Arrazoia emanda	Arrazoirik eman gabe
Taxien ordezkaria	Jose Ignacio López		X	
Aisialdi-kiroleko ordezkaria	Héctor García	X		
Interpretazio-zentroen, gidarien eta bidaia-agentzien ordezkaria	Josu Abeytua	X		
Ostatuen ordezkaria	Ander Elortegi	X		
	Gorka Mendia		X	
Merkataritzako ordezkariak				
Algortako Dendak	Virginia García	X		
Romo Bizirik	Mikel Atxaerandio	X		
Getxo Enpresa	Jose Manuel Garay			X
Ostalaritzako ordezkariak				
Romo Bizirik	Rafa Oteo		X	
Getxo Enpresa	Desireé Yeste		X	
ASOHGE	HUTSIK			
Alderdi politikoak				
Elkarrekin Podemos	Xabier Benito		X	
EH Bildu	Ibon Rodríguez	X		
PSEE	Carmen Díaz	X		
PP	Fco. Javier Elorza	X		
EAJ/PNV	Iñigo Urkitza	X		
Getxoko Udala - Ekonomia Sustapeneko Arloa				
Getxolaneko zinegotzia	Juanma González	X		
Ekonomia Sustapeneko lantaldea	Juan Jesús Blanco	X		
	Mirene Zabalgoeazcoa	X		
	Ane Osoro	X		
	Rubén Justicia	X		



1.- Ongi etorria ematea, ordezkariak aurkeztea eta bileraren helburua azaltzea.

Iñigo Urkitza Ekonomia Sustapenaren Arloko zinegotziak, EAJ/PNV alderdiaren gaur egungo ordezkariak, hitza hartu du. Bertaratutakoei ongietorria eta eskerrak eman dizkie, eta Juanma González Getxolaneko zinegotziari eman dio hitza. Orduan hasi da sektoreko ordezkarien eta talde politiko guztien ordezkarien aurkezpena hasi da.

Juanma Gonzálezek labur-labur azaldu dizkie kontrasteko mahai politikoaren funtzionamendua eta helburuak mahai lehenean parte hartu duten pertsonei. Bestalde, gogorarazi die webgunean informazio gehiago eta akta guztietarako sarbidea badagoela: [Getxo - Ekonomia Sustapena - Enpresen Kontsulta Foroa- Enpresen Kontsulta Foroa](#)

Ondoko ordezkari politiko eta sektorialekin ezin etorria adierazi dute:

- ✓ *Xabier Benito, Elkarrekin Podemos alderdiko zinegotzia.*
- ✓ *Rafa Oteo, Ostalaritzako ordezkaria, Romo Bizirik elkartearen izenean.*
- ✓ *Desirée Yeste, Ostalaritzako ordezkaria, Getxo Enpresaren izenean.*
- ✓ *Gorka Mendia, Ostaluen ordezkaria, Getxo Rooms-en izenean.*
- ✓ *Jose Ignacio López, Taxien ordezkaria.*

Juanma Gonzálezek jakinarazi duenez, 2024ko martxoan egindako azken mahai sektorialetan eta 2024ko apirilko Kontsulta Foroan ez zen proiektu berririk proposatu, baina informazio-dokumentazioa bidaltzeko eskatu zen, eta bitartekaritza-eskaerak egin ziren beste arlo eta erakunde batzuekin Getxoko hainbat gai eta proiekturi buruz.

Amaitzeko, Juanma Gonzálezek konpontzeke dauden ekintzak partekatze aukera emanda amaitu du mintzaldia.

2.- Enpresen Kontsulta Foroan proposatutako ekintzen erreposoa:

Juanma Gonzálezek aribideko ekintzen bilakaeraren berri eman du, Aisialdiko mahaitik hasita.

Aisialdiko kirola eta bela:

Hector García, aisialdiko mahaiaren ordezkariak, alegatu bat eginez ekin dio mintzaldiari, lau urte baino gehiago baitaramatza Kirol Portuko enpresa-ingurunearen etorkizunaren arazoa azpimarratzen, baina ez da gauza izan mahai gainean ipini dituen proposamenetako bakarrari ere buru emateko.

Era berean, jakinarazi du Kirol Portuaren emakidadun berriak, ABRA GETXOPORT sozietateak, aditzera eman duela lehen bi urteetan ur-geruza erabiltzeko alokairu-tarifak % 40 eta % 50 artean igo direla Kirol Portuko pantalanen barruan irabazi-asmoko kirol-ontziak



dituzten jabe guztientzat. Gainera, adierazi du dokumentu publiko horretan ez direla amarratze berriak aipatzen.

Adierazi du sektore osoa “etsita” dagoela eta desabantaila garbian dagoela eskualdeko beste enpresa batzuen aldean, hala nola Abrako *Maritimo*-aren edo Santurtziko pantalanen aldean, askoz ere tasa merkeagoak eskaintzen baitizkiete belako eta aisialdiko enpresei.

Juanma González Getxolaneko zinegotziak argitu du aste honetan bilera bat izango dutela amarratzaileen kolektiboarekin, aurretik negoziatutako baldintza ekonomiko berriei buruz eztabaidatzeko, eta igoera ez dela % 4-5etik gorakoa izango. Hala eta guztiz ere, argitu du igoera horren berririk ez zuela, eta bere ustez, eskaintza pertsonalizatua lantzea izan daiteke irtenbidea.

Era berean, Héctor García salatu du emakidadun berriak duela gutxi jarri duen informazio-guneak ez duela argibiderik eta jendaurreko arretarik eskaintzen, inguruko enpresa-sarearen eskaerei ez baitiete erantzuten. Era berean, kezka handia agertu du inguruko turismo-enpresen etorkizuneko plangintza egiteko ezintasunagatik: “Inork ez du Kirol Portuko enpresekin hitz egin garatuko den plan estrategikoaren berri emateko, ezta aplikatu nahi dizkiguten baldintza ekonomiko berrien berri emateko ere”.

Ildo horretan, Josu Abeytuak, Gidarien mahaiko ordezkariak, zehaztu du amarratzaileek eta Getxoko herritarrek hainbat urte daramatzatela komunikabideetan “losintxak” entzuten, emakidadun berriak ezarriko duen aldi berriari buruz, getxoztar guztiek hasiera-hasieratik landu nahi izan duten proiektua bertan behera geratuko delarik. Era berean, Gobernu Taldeak eta gainerako alderdi politikoek gai honen inguruan izan duten jarduerarik eza azpimarratu du. Aferaren inguruko erantzun bakarra beste aldera begiratzea izan da beti, eta herritarrei Kirol Portuaren proiektuari buruzko azalpenik ez ematea, nahi eta, bere ustez, Getxorako sarrera turistikoa eta ekonomikoa den arren.

Beste alde batetik, Alderdi Popularreko ordezkari Fco. Javier Elorzak bertaratutakoei gogorarazi die Udalaren Osoko Bilkurak erabaki zuela Kirol Portuaren kudeaketa enpresa pribatu baten esku uztea, nahiz eta bere alderdiak aurkako botoa eman, bai lizitazioa lehiaketa publikoan ateratzearen aurka, kudeaketa sozietate pribatu bati emateko, bai gaur egun Kirol Portuaren barruan dauden enpresak berritzeko proposamenaren aurka. Horren guztiaren ondorioz, ohartarazi du esleipendun berriak ahalmena baduela egun espazioa erabiltzen ari diren enpresak aintzat ez hartzeko, eta, beraz, 2025eko urtariletik aurrera horiek ez kontratatzeko aukera badagoela.

Ibon Rodríguez EH Bilduko ordezkariak adierazi du beraiek ez dutela inoiz konfiantzarik izan Kirol Portuaren proiektuaren bideragarritasunean, “gabezia” gehiegi zituelako garraio publikoari dagokionez eta, gainera, EH Bilduren arabera, beste udalerrri batzuetan funtzionatu ez duen eredia delako. Horregatik, abstenitu egin ziren Udalaren Osoko Bilkuran eta nahiago izan zuten Kirol Portuaren ustiapena enpresa esleipendun bati ematea, inbertsioa kapital pribatua erabiliz egiteko ardura hartuta.



Iñigo Urkitza EAJ-PNV alderdiko zinegotziak gogoan hartu du ordezkari sektorialak aipatu duen ur-geruzaren alokairuaren gaineko tarifan igoera, eta haiekin harremanetan jarriko direla argitu du.

Azkenik, Héctor García adierazi du, Kontsulta Foroan lau urte baino gehiago parte hartu arren, bere jardunak eraginkortasunik izan ez duenez, aisialdi-mahaiko ordezkariaren kargua uztea erabaki zuela. Mirene Zabalgogezcoa (aurrerantzean, M.Z.) Ekonomia Sustapenaren Arloko teknikariak eskerrak eman dizkio urte hauetan guztietan Getxoko aisialdiaren sektorearen kezka azaltzen Kontsulta Foroan egindako lan handiagatik. Hector Garcia bilera-aretotik irten da.

➤ ***Luizia Barinatxe hondartzarako sarbidean: tartean dauden alderdien artean hartutako akordioei buruzko informazioa eskatzea:***

Ane Osoro Enpresa eta Jarduera Turistikoen teknikariari eman diote txanda, eta azaldu du kirol-aisialdiko mahaian kezka sorrarazi duen autuetako bat Barinatxe hondartzarako sarbidea izan dela, makina bat bainularik eta jarduera turistikoa garatzen duten surf enpresa ugarik erabiltzen duten gunea da eta. Horren haritik, jakinarazi du, hondartzara sartzeko ezponda jausi ostean, hareatarako sarbide aldapaduna txikituta geratu zela, sorosleak, ezinduak eta osasun-laguntzako ibilgailuak sartu ezinik suertatu zirela. Sopolako Udalak aste honetan iragarri du Barinatxe hondartzako ezpondaren gaineko lanak hasi dituela, bainularien segurtasuna bermatzeko xedez.

M.Z.k adierazi du obren emaitzaren berri emango dela aisialdiko mahaian.

Merkataritza:

➤ ***Emisio Gutxiko Eremuak (EGE) zedarriztatzeko prozedurari buruzko informazioa:***

Iñigo Urkitza, EAJ-PNV alderdiko zinegotziak, gaur egun datuz aberasten ari dela adierazi du airearen kalitate-eredu hobezina osatzeko eta, ondotik, zer eremutan jardun daitekeen aztertzeko. Getxoko bi eremutan hartu dira datuak: Gaintzan eta Mesedeetako aldean.

➤ ***Itsasadarraren azpiko tunela eraikitze lanen afektazioei buruzko informazioa:***

Juanma González Getxolaneko zinegotziak gogorarazi du ez dela udalaren erabakia, Bizkaiko Foru Aldundiak hartutako erabaki estrategikoa baizik.

Mikel Atxaerandiok, Merkataritza sektoreko Romo Bizirik elkarteko ordezkariak, adierazi du, bere ustez, proiektu hau kaltegarria izan daitekeela eremuko merkataritzarentzat.



Fco. Javier Elorzak, PP alderdiko ordezkariak, esan du oraindik onartu gabe dagoen proiektua dela.

Ibon Rodriguezek, EH Bilduko ordezkariak, azaldu du urteak daramatzatela Aldundiak proiektu hori aurrera eramateko beharra ondoriozta dezan azterketak eskatzen, haiek ez baitiote inolako zentzurik igartzen, eta, proiektua gauzatu gero, lanek merkataritzan izango luketen eragina arintzeko moduetako bat udalaren dirulaguntza bat onartzea izango litzatekeela adierazi du.

Gidariak, interpreteak eta bidaia-agentziak:

- ***Arriluce Hoteleko arduradunekin bilera adostea udalerraren inguruko estrategia ezagutzeko eta balizko aliantzak bilatzeko:***

Gidarien eta Ostatuen arloetako ordezkariak adierazi dute harreman profesionalak lantzea izan dutela Kontsulta Foroari esker eta biltzeko prest daudela.

- ***Getxo gozatzeko planak 2023. Adierazleak: ostatu-gauak eta itsasoaren nahiz irristatzeko kirolen bilakaera:***

Rubén Justicia merkataritza-arloko teknikariak esan du itsasoaren eta irristatzeko gaineko memoria amaituta dagoela eta aste honetan bertan argitaratuko dela Getxoko Udalaren webgunean.

Ostalaritza:

- ***KONTSULTA FOROAREN Ostalaritza mahaiko plaza hutsak betetzeko deialdia proposatzea:***

M.Z.k adierazi du Getxoko Ostalaritza Elkarteak (ASOHGE), aurtengo batzar orokorra egin ondoren, jarduerari uztea erabaki duela. Hala, ordezkariak foroan duten parte-hartze txikia ikusita, M.Z.k prozedurari ekiteko konpromisoa hartu du sektore horretako hautagaiak lor daitezen.

- ***Lokalaren barruan zein kanpoan, musika-ekitaldi bat antolatzeko prozedurari buruzko laburpen-dokumentu tekniko idazteko eskaera:***

M.Z.k azaldu duenez, Kultura Arloak bultzatutako GetxoLive jaialdiaren deialdiaren ondorioz, lokalaren barruan zein kanpoan musika-ekitaldi bat antolatzeko prozedura azaltzen duen eta hizkuntza ulergarriagoz idatzita dagoen dokumentu bat prestatzeko beharra azaldu zen. Kultura Arloarekin lanean ari dela eta webgunean argitaratuko dela aipatu du.

Mikel Atxaerandiok adierazi du deialdi horrek ez duela, ez ostalaritzarentzat, ez merkataritzarentzat, erakargarria izateko behar adinako diruzko hornidurarik jasotzen.



➤ ***Kalitatearen eta eskaintza gastronomikoaren jaitsierari kontra egitea helburu duten ideiak proposatzea/aztertzea/baloratzea:***

Sektoreak berak Getxoko gastronomiaren kalitatez eta berdineztasunez duen kezka azaldu ostean, M.Z.k adierazi du EHUrekin eta gaiaren inguruan adituak diren aholkulariekin gidaritzaz-egitasmoa lantzea begiz jota dagoela, sektorearekin batera, balizko ekintzak aztertzeko helburuz.

Ostatua:

➤ ***Getxoko hotelak iragartzeko seinaleak hobetzeko irtenbideak bilatzea:***

Ander Elortegik, ostatu-mahaiko ordezkariak, aipatu du ostatu-mahaiaren proposatu ziren proiektuetako bat izan zela Udalak udalerrri barruko seinaleztapen egokia bultzatzea, Getxora iristen diren turistei hotelen eta apartamentu turistikoaren kokapenei buruzko argibide argiak emateko.

Iñigo Urkitzak azaldu duenez, aurten, seinaleak ezarriko dira bisitarien eta turisten joan-etorriak merkataritza-guneetara eta garraio publikoaren guneetara bideratzeko. Hotelak iragartzeko seinaleei bigarren fasean helduko zaie.

4.- Galde-eskeak.

Ibon Rodriguez EH Bilduko ordezkariak zalantzan jarri du egungo Kontsulta Foroaren eredia, eta, etorkizuneko deialdiei begira, zein ereduk jarraitu behar duen baloratzeko eskatu dio egungo Gobernu Taldeari. Bestalde, adierazi du Kontsulta Foro honetarako bideratu den aurrekontua nahikoa mugatua dela eta, bere ustez, iaz proposatutako proiektu asko ez direla gauzatu.

Iñigo Urkitzak azaldu du Kontsulta Foroa beharrezkoa dela, parte hartzeko tresna baita, eta, bertan, eragileek udalerriko turismo- eta enpresa-jardueraren garapenari buruzko proposamenak egiteko aukera baitute; dena dela, adierazi du aurkezten diren proposamenek aurrekontua jasota izan behar dutela.

Josu Abeytuak Aixerrrotako Errota jatetxearen inaugurazioari buruz galdetu du. Iñigo Urkitza EAJ-PNV alderdiko ordezkariak esan du lizentzia eman zaiela dagoeneko, baina inaugurazio ofizialaren data ez dela ezaguna.

Josu Abeytuak, gidarien, interpreteen eta bidaia-agentzien mahaiko ordezkariak, Usategi kafetegiaren lizitazio publiko berriaren egoerari buruz galdetu du. Iñigo Urkitzak, EAJ-PNV alderdiko ordezkariak, erantzun dio Getxoko Udalak Usategi udal-kafetegiaren emakidaren lizitazioa argitaratu zuela eta hura ustiatzeko proposatutako enpresak uko egin diola esleipenari; beraz, berriro ere hutsik geratu da lizitazioa.



Galdera eta eskaera gehiagorik ez dagoenez, Juanma González Getxolaneko zinegotziak amaiera eman dio batzarrari. Era berean, bertaratutakoei gogorarazi die akta guztiak Udalaren webgunean argitaratuta daudela, honako esteka honetan:

[Getxo - Ekonomia Sustapena - Enpresen Aholkularitza Foroa - Enpresen Aholkularitza Foroa](#)

5.- Hurrengo urratsak: Kontrasteko Mahai Politikoa

KONTRASTE-MAHAIAREN ERABAKIAK (2024-05-26):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea.	Udal-teknikariak	Bilera-egunetik aurrera
2. Bilera finkatzea Arriluce Jauregia Hotelaren eta Gidarien sektoreko ordezkarien artean.	Ostatu eta Gidarien sektoreko ordezkariak	Bilera-egunetik aurrera
3. Ostalaritzako ordezkariak hautatzeko deialdia proposatzea, ordezkariok Foroan parte har dezaten.	Udal-teknikariak	Bilera-egunetik aurrera
4. ABRA GETXOPORT sozietateari portuko tarifen igoera negoziatzeko aukeraz galdetzea.	Ordezkari politikoak	Bilera-egunetik aurrera
5. Ostatuaren inguruko seinaleak jartzeko zirkuitua gauzatzeko helburuz, proiektuan bigarren fasea txertatzeko proposatzea Bidezaintza Arloari.	Udal-teknikariak	Bilera-egunetik aurrera
6. Bidaltzeko dagoen informazioa mahaietara igortzea: <ul style="list-style-type: none">– Lokalaren barruan eta kanpoan kontzertuak egiteari buruzko laburpen-dokumentua.– Itsasoari et Irristatzekoei buruzko 2024ko Memoria.– Barinatxe hondartzarako sarbidean egin den jarduketari buruzko informazioa.– Itsasadarraren azpiko tunelaren garapenari buruzko informazioa.– Ostalaritzaren kalitatea hobetzeko egitasmoari buruzko informazioa.	Udal-teknikariak	Bilera-egunetik aurrera